


Gure objektu kuttunak

Objektu batzuei maitasun berezia izaten diegu, gure bizitzako garai batekin edo esperientzia jakin batekin lotzen ditugulako. Objektu horietaz arituko gara jarduera honetan.

Ariketa hauek egin ditzakezu:

- M. Laboaren gustuko objektuei buruzko testua irakurri eta taula osatu.
- Laboak kontatutako pasadizo bat zeure hitzekin kontatu.
- Oso gustuko dituzun bizpahiru objektu aukeratu eta gelan eman horien berri.
- Jarduera hau egiteko, aurretik eman behar zaie denbora ikasleei gustukoak dituzten gauzei buruz pentsatzeko.



1. Mikel Laboaren objektuak

Ondorengo testuan dituzu Mikel Laboa kantariaren gustuko zituen objektu batzuk; Marisol Bastida alargunak kontatzen dio Bernardo Atxagari. Irakurri testua (aurretik, begiratu hurrengo orriko taulari jakiteko zeri erreparatu behar diozun).

Mikel Laboaren objektuak. Elkarrizketa Marisol Bastidarekin.

Marisol Bastida: Nik gogoratu nahi nuke joan den udan etorri zinetela denok –emaztea, zu eta umeak– eta egon ginela oso ondo hemen, Mikelekin.

Bernardo Atxaga: Mahai honetan bertan.

M.B.: Egun hartan zuk proposatu zenion elkarrizketa bat egitea berak aukeratutako hainbat objektu edo gauzaren inguruan.

B.A.: Hori da.

M.B.: Berari oso ondo iruditu zitzaion, eta hasi ginen aukeratzen gauza batzuk.

DISKOA: CANÇONS DE LA RODA DEL TEMPS

M.B.: Bartzelonan bi urte eta erdi egon ginen, eta hango zerbait aukeratu nahi genuen. Han Mikelek kultur munduko jendearekin (idazleekin, antzerkian zebilenarekin...) izan zituen harremanak, baina batez ere kantariekin: Raimon, Pi de la Serra, Lluís Llach. Hainbat gauza dauzkagu etxean garai hartakoak, zaila egin zait bat aukeratzea. Baina azkenean hau aukeratu genuen, *Cançons de la roda del temps*. Testua Espriu poetarena da eta musika eta interpretazioa Raimonena. Diskoa 1967aren inguruan atara zen.

AUTOA: CITROËN BI ZALDIKOA

M.B.: Guk "bi zaldiko" 2 izan ditugu.

B.A.: Gogoratzen naiz, kotxearekin askotan ikusten zintuztedan.

M.B.: Lehenengoa izan zen zuria , 70eko hamarkadan; hurrena, 80ko hamarkadan, horia izan genuen. Hamabost urte izan dira gure bizitzan, edo agian gehiago, bi zaldikoetan ibiltzen. Euskal Herrian batetik bestera izugarri ibili ginen, etaartzelona eta Mallorcara ere joan izan gara seme-alabekin eta txakurrarekin; baita kontzertuetara ere.

Mikelek beti esaten zuen nik mania bat neukala: justu bidegurutzetara ailegatzera gai inportante bat ateratzen nuela. Jakina, gai hori buruan izanda, berak beti hartzen zuen bide okerra, beti aldrebes.

PIAGET-EN LIBURUAK

M.B.:Liburu asko daude eta zaila da bat aukeratzea. Hala ere, nik uste dut autoreen artean Jean Piaget izan zela berak gehien maite zuena. Izugarri maite zuen. Baditugu etxean bere 7 liburu gutxienez. Denak zituen Mikel Laboak gustukoak, baina gehien erabiltzen zuena *Epistemología genética* zen. Nik uste dut Piagetek lan handia egin zuela haurren faseak aztertzen.



(Testua **Erlea 1** aldizkaritik hartua eta moldatua)

Markatu beheko taulan, ezaugarri horiek dituzten objektuak

Objektuak	Garai bat aipatzen du	Pasadizo bat kontaktzen du	Balorazioak egiten ditu
Diskoa: Cançons de La Roda del Temps			
Autoa: Citroën Bi Zaldikoa			
Piaget-en liburuak			

2. Pasadizo bat kontaktzen

Kontatu, zeure hitzekin, Mikel Laboak kontaktzen zuen pasadizoa bere emaztearen mania bati buruz.



3. Nire gustuko objektuak

Aukeratu zure gustuko bizpahiru objektu; horietako batek liburua edo diskoa izan behar du. Eraman objektu horiek –edo objektu horien argazkiak– gelara eta komentatu talde txikitan ikaskideekin.

Komentarioak egiteko, kontuan hartu puntu hauek:

- 1- Objektu hori aukeratzeko arrazoiak.
- 2- Denborazko erreferentzia: noizkoa den, garai hartan zer egiten zenuen...
- 3- Zer sentimendu sortzen dizkizun objektu horrek: poza, negargura...
- 4- Gogoan baduzu, kontatu pasadizoren bat objektu horrekin lotuta.

Gogoan hartu!

- Denborazko erreferentziak ematerakoan **aditzaren denbora** bat baino gehiago erabil dezakezu (erreparatu testuan diskoaren zatiari).

- **Sentimenduak adierazteko espresioak:**

*asko/izugarri gustatzen zait,
oso gogokoa dut
maitasun handia diot
negargura ematen dit
oroitzapen onak ekartzen dizkit
asko kosta zait aukera egitea, baina...*

Komentatu talde osoaren aurrean gauzarik interesgarrienak. Ba al dago errepikatzen den objekturik?



ERANTZUNAK

1. Mikel Laboaren objektuak

	Garai bat aipatzen du	Pasadizo bat kontatzen du	Balorazioak egiten ditu
Diskoa: Cançons de La Roda del Temps	✔		✔
Autoa: Citroën Bi Zaldikoa	✔	✔	
Piaget-en liburuak			✔

2. Pasadizo bat kontatzen (zure hitzekin)

Marisol Bastidak kontatzen du Mikelek esaten zuela nola justu bidegurutze batera ailegatzerakoan, gai inportante bat ateratzen zuela. Jakina, gai hori buruan izanda, berak beti hartzen zuela bide okerra, beti aldrebes.

